

SARA ETA PASILU MAGIKOA

Bazen behin Sara izeneko neskato bat, hark 3urte besterik ez zituen. Bera zen gelako txikiena eta txikita deitzen zioten:

-Hara , begira , txikita etorri da!-Gelako mutilak.

-Ez naiz txikita bat!eta ez deitu berriro horrelakorik niri!- Esaten zuen Sarak egunean hamar- hamaika aldiz.

Andereiño Maritxu etortzean denek Sara deitzen zioten Sarari andereiñoak ez zigortzeko noski, patioko orduan guztiz baztertuta geratzen zen beti bezalaxe, hamaiketakoa jaten ari zela Nerea hurbildu zitzaion eta esan zion:

-Hartu nire kromoak jendea etorriko zaizu kromoak bata bestearekin trukatzera.

-Zergatik egiten duzu hau?- Sarak.

-Pena sentitzen dudalako zuregan.- esan zuen Nereak.

Orduantxe txirrina jo zuen eta ezin izan zuten hizketaldia bukatu baina hala ere biak irribarretsu joan ziren gelara. Jolasten ari zirela Manex hurbildu zitzaion Nerea eta Sarari ea beraiekin jolasterik zuen galdetzera:

-Sara, Nerea zuekin jolastu al naiteke?

-Noski baietz Manex!- erantzun zuten bi neskek.

Orduan Sarari pixagura sartu zitzaion eta komunera joan zen Nerea eta Manexekin. Pixa egin ondoren Sarak adreilu batean jarri zuen eskuineko eskua eta BANBA!!! Pasilo magiko bat agertu zitzaion. Barrura sartu orduko atea itxi egin zen magiak eragingo balu bezala. Manex, Nerea eta Sara kezkatu zeuden, beldurra zuten agian ez ziren handik inoiz aterako!

-Ez gara inoiz hemendik aterako!

Manex zuhaitz batera igo zen eta berehala konturatu zen labirinto batean zeudela. 3 walkitalki aurkitu zituzten eta banatzea bururatu zitzaion: Manex eskuineko bidetik, Sara erdikotik eta Nerea ezkerrekotik. Banandu orduko 3rak negarrez hasi zeren:

-Amatxo, amatxo, waaaa waaaa!

Baina ausartak izan behar zuten eta aurrera jarraitu zuten. Bat-batean...

-AUPA, AUPA IRTEERA!!!

Sarak wakitalkia hartu eta esan zien Nereari eta Manexi:

-Eman buelta eta hartu erdiko bidea, irteera aurkituko duzue.

Kasu egin zien eta gelan dena kontatu orduko Sarari txikita deitu ordeztu Super heroi deitzen zioten.

Den-denak zoriontsu bizi izan ziren egun hartatik aurrera.